



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5

UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 13

1 BORONDATEA: NIK AUKERA DEZAKET, ZUK, NESKA, AUKERA DEZAKEZU, ZUK, MUTILA, AUKERA DEZAKEZU... ALA EZ?

Gure ikasle neskek eta ikasle mutilak borondatea gero eta gehiago erabiltzeko, gero eta erabaki gehiago hartzeko eta nahi dutena aukeratzeko prozesuan daude. Gakoa berriz, ikasle neskek eta ikasle mutilek bai bere bizitzaren arlo pertsonalean, bai profesionalean eta bai sozialean ere egin nahi dutena erabakitzeko eta gauzatzeko aukera eta baldintza berberak dituzten jakitean datza. Hots, nesken "nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket/aukeratu nahi dut" hori mutilen "nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket/aukeratu nahi dut" horren parekoa den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken "nahi dut/aukeratzen dut" horrek mutilenak bezain aukera-sorta duen, esparru beretan eta gizarteko onarpen berarekin ematen den.

Denboraren erabilerari buruzko inkestek, bizimoduek eta ohiturek (kirol-praktika, kontsumoa, erlazioak, arrisku jokabideak...) neskek eta mutilak modu ezberdinean bizi direla adierazten dute. Ikasketen aukerari eta enpleguari buruzko datuek, nahiz eta azken urtetan aldatu, oraindik ere arlo maskulinizatuak (teknikoak, teknologikoak) eta arlo feminizatuak (osasunagoak, zientzia sozialak) daudela adierazten dute.

Datu hauek nesken eta mutilen desioak, gustuak eta borondatea nola eraikitzen diren, aukeratzeko askatasun erreala, neskek eta mutilek normaltzat jotzen dutena eta normalki neska-mutilei helduok eskaintzen diegun aukera-sortari buruz guk pentsatu eta hausnartzeko beharra azaltzen dute.



Gizartean, gizonezkoentzat edo emakumeentzat egokiagoak diren bizimoduak, desioak, gustuak, proiektuak, ohiturak, lanbideak, zereginak, ikasketak... daudela pentsatzeko joera daukagu. Eta askotan, aukera horiek dira gizarteak, familiek eta eskolak berak gure ikasleei eskaintzen dizkiegunak. Horrela, "normaltzat eta naturaltzat" jotzen dugu neska batek alternatiba femeninoak aukeratzea (gimnasia erritmikoa edo baleta, panpinekin jolastea, neskekin erlazionatzea...) eta mutil batek maskulinoak aukeratzea (futbola, autoekin jolastea, mutilekin erlazionatzea...). Hau guztia, ez beraien ezaugarri pertsonalen arabera, sexuaren arabera baizik.

Baina, errealtateak uste hauei kontra egiten dieten hainbat neska eta mutil ere badirela esaten digu, bizimodu, zaletasun, ikasketa ezberdinak izan nahi eta aukeratzen dituztenak, beren sexuaren arabera eduki beharko lituzketen mugak gaindituz. Eta baita emakume eta gizon batzuk ere genero ikuspuntutik lanpostu ezohizkoetan. Ondorioa argi dago, mutilen eta nesken "nik nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket" ezberdina ez da jaiotzez eta halabeharrez biologikoki ematen den zerbait. Beren borondatearen erabilera unean eta erabakiak hartzeko garaian gure ikasleei, beren sexuaren arabera, piztu edota itzaltzen diegun semaforo gorri eta berdeen ondorioak dira.

Aurreiritziek eta genero estereotipoek neska eta mutilen "nik nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket" hau markatzen dute. Horregatik, irakasleek, ikastetxeek, familiek, gizarteak... mugak (semaforo gorriak) identifikatu behar dituzte eta aktiboki aurre egin. Nahiz neskek nahiz mutilek, soilik pertsona bakoitzaren mugak kontuan harturik bere bizi proiektua libreki aukera eta erabaki dezaten, hezitzaileek semaforo berdeak piztu ahal eta piztu behar dizkiete.

Arrosa, urdina... edo kolore-sorta guztia?

Arrosa edo urdinaren artean gure ikasleen "aukeraketa", "zaletasuna" edo "gustua"-k nesken eta mutilen alternatiba-sortaren genero mugak modu erraz eta sinbolikoan adierazten ditu. Gure ikasleen adinarentzat, mutilek ikasi dute arrosa ez dela kolore aproposa beraientzat, nesken kolorea dela, eta modu berean neskek arrosa beren kolorea dela ikasi dute. Ez da beharrezkoa esplizituki esatea, jaiotzen diren momentutik janzten duten arropan, bere gelako hormetan, bizikletaren kolorean, oparien paper eta lazoan... ikusten dute. Beraienetan edo inguruko nesken eta mutilen bizitzan. Eskaintza, ikasle bakoitzak aukera lezakeen koloresortatik, bi kolore horietara mugatzen da.

Berdintasunerako heziketan, gure ikasleei arrosa eta urdina (eta bere eduki sinbolikoa) beste askoren arteko bi kolore baino ez direla erakutsi behar diegu, eta bai neskek bai mutilek biak aukera dezaketela ulertzen lagundu behar diegu. Beren bizitzarako alternatiba-sorta (kolore-sorta) ahal den eta gehien zabaldu behar diegu, "nahi dut/aukeratzen dut" pertsonal eta libre bat egin dezaten. Bai neskek bai mutilek aukeratu ahal behar dute alternatiba-sorta osoaren artetik beren gustuak, desioak, proiektuak, ametsak, ohiturak, erlazioak, zaletasunak, jarduera fisikoa, arropa estiloa, ikasketak, lanbideak, eta abar.

Ikasleek bere izateko era eta bere etorkizuna, bere bizi proiektu propioa, libreki nahi izaten, desiratzen eta aukeratzen ikasi behar dute. Eta baita hau guztia aldatzen ikasi ere, beste pertsonen aldaketak errespetatuz. Neskek eta mutilek aldatzeko eskubidea dute eta beren desioak, erabakiak, gustuak... bere bizitza proiektua, askatasunez aldatu ahal behar dute.

2

HELBURUA. AUKERA BERDINTASUNA: GUK, NESKEK ETA MUTILEK, AUKERATZEN DUGU; HAI EK, NESKEK ETA MUTILEK, NAHI ETA AUKERATZEN DUTE

Unitate didaktiko honen helburua hau da: neskek eta mutilek beren bizitza proiektu pertsonala eta besterenezina, gaur egungo bizimodua eta geroko ibilbidea aukeratzeko duten gaitasun indibiduala lantzea eta bultzatzea. Bai mutilek eta bai neskek nahi duten moduan desiratu, nahi, aukeratu, planeatu, egin eta aldatu dezaketen orainaldia eta etorkizuna.

Hau da, neskek eta mutilek ez dute beren aukerasorta mugatua izan behar euren sexuaren arabera. Bakoitzak nola bizi, zer egin, norekin egon, etab. aukeratu eta erabaki behar du. Maiz ikus ditzakegun talde-desberdintasunak, generoko ikasketa sozialen eta generoko baldintzatzaileen emaitzak dira, ez pertsona bakoitzaren berezko gaitasun eta ahalmenen ondorioak.

Semaforo berdeak neska eta mutilentzat:

Unitate didaktiko honek zera lortu nahi du: neska-mutilek aurkitu, aztertu eta itzali ditzatela gizarteak sexu bakoitzaren bizi aukerei jartzen dizkien semaforo gorriak (emakumeak ala gizonak zer, nola eta noiz aukera dezaken). Hau da, aurkitu ditzatela mutilak edo neskak izateagatik gure gizartean "nahi/ aukeratu ezin" dituzten gauzak. Semaforo gorri hauek aurkitu, aztertu eta aldatu ditzatela.

Semaforo gorri hauek, gehienetan, eguneroko jardun txikiak eta esaldiak dira, sarritan ohartu gabe, inplizituki generoko aurreiritzi sozialak errepikatzen dituztenak: "jolasa hori aproposagoa da mutilentzat", "emakumezkoen lana da", "neskek hobeagoak dira", "ez da egokia mutilentzat", "neskei gehiago gustatzen zaie", "mutilei gehiago interesatzen zaie", eta abar. Semaforo horiek ikusteko azterketa nahita egin behar da eta azterketa egiteko prestakuntza egokia eta aldatzeko borondatea behar dira.



Unitatearen helburu zehatzak:

- Gure ikasle neskek eta mutilek euren borondatez jarduteko eta nahi dutena erabakitze gaitasuna eta, beraien ustetan, horretarako dituzten mugak ezagutu, bai pertsonalak eta bai sexuaren arabera.
- Desio, aukera, plangintza eta aldatzeko gaitasunari buruzko nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak dauden ala ez aztertu.
- Aukera-sortari dagokionez eta beren borondateaz erabakiak hartzeko dituzten mugen pertzepzioari buruzko nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak dauden ala ez aztertu.
- Neska edo mutila jaiotzeagatik aukeratu edo aukera dezaketen gauzei buruz gure ikasle nesken eta mutilen iritzia ezagutu.
- Neskentzat desegokiak iruditzen zaizkien nahiak eta aukerak eta mutilentzat desegokiak iruditzen zaizkienak identifikatu. Semaforo gorri hauek aztertu eta aldatu.
- Soilik neskentzat egokitzen dituzten nahiak eta aukerak identifikatu, eta soilik mutilentzat egokitzen dituztenak ere bai. Semaforo berde hauek aztertu eta guztientzat berde bilakatu.
- "Nik nahi/desio/aukeratu/aukera ahal dut" propioa eraiki norberaren ezaugarri eta gaitasunetatik abiatuz eta ez neska edo mutila izatetik.
- Nahi duten bizitza eraikitze, garapen pertsonalerako hainbat alternatiba artean aukeratu ikasi eta erabaki hauek aldatzen ikasi.
- Beren harremanak, adiskideak, sare sozialak, etab. aukeratu ikasi.
- Berdintasunez aukeratu. Hau da, neska eta mutil bakoitzaren aukerak eta erabakiak errespetatu eta baloratu bere sexua kontuan izan gabe.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5 UNITATE
DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 14

3 UNITATEKO MATERIALAK ETA EKINTZAK

Unitate didaktikoko materialak hauek dira:

1. "Buru eta Sorgin" ipuina.
2. "Zerrenda" mahai jolasa.
3. Ikaslearen koaderno.
4. Familiaren koaderno.

Lehendabiziko bi materialak, ipuina eta jolasa, koaderno biak baino lehenago erabili behar dira. Material hauek ikasleek, jolastuz, egoera ezberdinak esperimendu, sentitu eta bizitzeko dira, galderak, hausnarketak, elkarrizketak, eztabaidak... piztu ditzaketen egoerak hain zuzen. Beraien eginbeharra eguneroko bizipen eta errealitate ohartugabeak argipean eta mahai gainean jartzea da, berdintasunaren eta giza eskubideen ikuspuntutik esplizitatu eta aztertze aukera ematea.

Koadernoak, berriz, bizipen, eztabaida eta hausnarketak laburtzeko eta barneratzeko tresnak dira, eskolan egindako lana sendotu, finkatu eta familia giroan zabaltzeko. Ikaslearen koaderno ikasgelan landu eta egiteko da. Irakasleak talde handi edo txikietan aurkeztu, azaldu eta landu beharko du lehenengo, gero ikasle bakoitzak berea bete dezan.

Familiaren koaderno unitatea bukatzen ari denean bidali behar da etxera, hiruhileko bukaera aldera. Irakasleak aurkeztu eta, etxeko laguntzarekin zer egin beharko duten azaldu beharko die ikasleei koaderno bidali aurretik. Koadernoak ez du izan nahi ondo egin berritoki behar den ohizko etxeko lana. Eskolan egin den lana familian ezagutu, hitz egin eta hausnartzeko gonbidapena da.



4 "BURU ETA SORGIN" IPUINA

Ipuina unitate didaktikoaren CD-an dago. Hainbat erabilera metodologiko egiteko ondorengo formatu eta artxiboetan aurkezten da:

1. Audioa. Ipuina osorik: 11:59 minutu.
2. Audioa. Ipuinaren 1. zatia: 05:46 minutu.
3. Audioa. Ipuinaren 2. zatia: 06:39 minutu.
4. Abestia-1. Audioa. Iraupena: 00:24 minutu.
5. Abestia-2. Audioa. Iraupena: 00:35 minutu.
6. Ipuina osorik. Power Point aurkezpena (PPT): irudiak, marrazkiak, audioarekin lotuta testurik gabe. Paso automatikoa. Iraupena: 11:44 minutu.
7. Ipuinaren 1. zatia. Power Point aurkezpena (PPT): irudiak, marrazkiak, audioarekin lotuta testurik gabe. Paso automatikoa: 05:28 minutu.
8. Ipuinaren 2. zatia. Power Point aurkezpena (PPT): irudiak, marrazkiak, audioarekin lotuta testurik gabe. Paso automatikoa: 06:20 minutu.
9. Ipuinaren irudiak. PPT aurkezpena irudiekin bakarrik, audiorik eta testurik gabe. Eskuz pasa behar da.
10. Irudiak testu laburrekin. PPT aurkezpena irudi eta testu laburtuarekin, audiorik gabe. Eskuz pasa behar da.
11. Irudiak, testurik gabe. Inprimatzeko PDFa.
12. Irudiak testu laburrekin. Inprimatzeko PDFa.
13. Irudiak testu osoarekin. Inprimatzeko PDFa.

Ipuinak Buru izeneko neska eta Sorgin izeneko mutil baten abentura kontatzen du. Beraien izenak beren ezaugarri pertsonalen eta erabaki ezberdinen adierazgarriak dira. Protagonista biak programako sei unitate didaktikoetan zehar gurekin dagoen gure ikasleen adineko ikaskide taldearen partaide dira. Ipuin honek adin honetako neskamutilen gustu narratiboak jaso nahi ditu: akzioa, misterioa, errepikapenak, hitz-jokoak, umorea, errimak, kankar... Horregatik, funtzio nagusia betetzen duen abesti bat dago, pertsonaiak, ipuina eta unitatearen gaia laburtzen duen kanta.

Helburuak:

Ipuina Berdinland izeneko herrialdean gertatzen da, gizon eta emakumeen berdintasunaren ikuspegitik eredu positiboak (semaforo berdeak) eskainiko dizkigun herrialdea. Maiz, gure inguruko ohizko egoera estereotipatuen alternatiba izango diren egoerak eta ereduak aurkituko ditugu. Unitate honetan, adibidez, orokorrean "mutilen" jarduntzat (ezagutza teknologikoak) jotzen diren gauzak ikasi eta zereginak egiten dituzten neskek eta emakumeak daude eta, alderantziz, "nesken" jarduntzat (zaintzarekin lotura dutenak) jotzen diren gauzak ikasi duten eta lanak egiten dituzten mutilak eta gizonak ere bai.

Ipuinak ahalmen eta trebetasun oso ezberdinak dituzten neska eta mutil baten istorioa kontatzen du. Biek elkar lagunduko dute euren taldeak erabaki dituen proiektuak eta planak aukeratzeko eta aurrera eramaten.

Buru, matematikan eta informatikan nabarmentzen den neska da. Sorgin oso mutil lagunartekoa da, plan eta inizatiba guztietan parte hartzen duena. Beste ikasleekin eta maisuarekin hiru hilez behingo txangoa antolatzen dute, zein oraingo honetan etorkizunera bidaia bat da. Istorioan zehar, etorkizunean euren helburuak lortzeko orain prestaketa batzuk egitea oso baliagarri eta beharrezkoa dela ikasiko dute. Hots, ahalmen batzuk bere borondatez landu beharko dutela helburuak lortzeko, gai izateko. Ipuinak, gaur aukeratzen eta erabakitzen dutenaren eta etorkizunean egin ahal izango dutenaren lotura azpimarratzen du: "Sorgin, Buru... beren burua oso ondo prestatzen ari dira izan nahi duten etorkizunerako".



Horretarako ezaugarri hauek garatzen dituzte:

- Aukeratzeko jarrera pertsonala: desiratzen desiratuz ikasten da, aukeratzen aukeratu, eta aldatzen aldatuz.
- Errespetua: mundu guztiak bere borondatez jardun dezake, desiratu, bere erabakiak hartu, aukeratu... Norberak bere aukerak egin behar ditu.
- Aniztasuna: gehienetan soilik neskei edota soilik mutilei proposatzen dizkiegun erabakitzeke alternatibak baino askoz aukera gehiago daude bai neskentzat eta bai mutilentzat.
- Planifikatzeko ahalmena: aukeratzean, egungo bizitzari eta etorkizunerako proiektuari forma ematen diogu. Oraingo erabakiek etorkizunean izango ditugun aukerak eraikitzen dituzte.
- Ibilbide pertsonala: norberak nahi duen moduan aukeratu, planeatu, egin, aldatu... dezakena.
- Moldatzeko ahalmena: mundu guztiak bere erabakiak aldatzeko eskubidea du. Aldatzea ez da porrota. Ibilbidearen zati bat da, bizitza proiektuaren atal edo pausu bat da.

Ipuinaren pertsonaiek, beraien sexuari lotutako mugak kontuan izan gabe, nahi eta desiratzen dutena aukeratzen dute. Ez dute aukeratzen neskentzat eta mutilentzat ezarritako generoko jardun ereduetatik. Bakoitzak bere erabakiak hartzen ditu eta besteenak baloratzen eta errespetatzen ditu.

Ariketak:

Ordena hau jarraituz landu daiteke ipuina:

1. Audioa entzun eta ahozko ulermena landu. Motibazioa eta laburpena kantarekin landu.
2. Ipuin osoarekin, irudiak eta audioa dituen aurkezpenarekin, ulermena eta mintzamena landu.
3. Soilik irudiak dituen aurkezpena eta PDFarekin denboralizazioak eta ahozko kontaketa landu.
4. Irakurmena eta idazmena landu testuak eta irudiak dituzten aurkezpen eta PDF-ekin, neska-mutilen mailaren arabera testu osoa edo laburtua erabiliz.

Ariketa guzti horiek berdintasunaren ikuspegitik sakondu beharko lirateke, ondorengo galderen laguntzaz:

- Zer egiten zaie arraro, zer gustatu zaie gehien edo gutxien, zer iruditu zaie euren errealitatetik oso urruti, zer da sinesgarria, zer da sinesgaitza, zergatik, eta abar.
- Ba al daude kirolariak izan nahi duten neskak? Nahi eta aukera dezakete neskek gehienbat mutilek egiten dituzten lanbideak? Eta alderantziz? Ba al daude umeak zaindu nahi dituzten mutilak? Eta dantzariak izan nahi dutenak? Lanbide hori aukera dezakete? Zergatik bai? Zergatik ez? Zein ondorio du horrek?
- Zergatik aukeraten edo erabakitzen du zerbait pertsonai batek? Mutila delako? Neska delako? Neska guztiak gauza berdinak aukeraten dituzte? Ez daude "mutilen gauzak" aukeraten dituzten neskak? Mutil guztiak gauza bera erabaki behar dute? Ez daude mutil gehienekin konparatuz kirol, ikasketa, lagun ezberdinak aukeraten dituzten mutilak? Zergatik?
- Zein pertsonaiek hartzen dituzte erabakiak? Ipuinaren zein unetan? Libreki aukeraten dituzte? Nola hartzen dituzte beren erabakiak? Zein da emaitza?

1. Ipuinaren audioa entzun eta...:

- Ipuinari, pertsonaiei, istorioari, erreakzioei, elkarrizketei, dituzten ezagutzei, adierazten dituzten erabakiei eta nahiei buruz galderak egin. Beraiei gauza berdinak egitea eta lanbide horiek izatea gustatuko litzaiekeen galdetu.
- Gure inguruan antzeko pertsonak bilatu. Hartu dituzten erabakiak ikusi eta horiek etorkizunerako izan dituzten ondorioak aztertu.
- Ipuinaren istorioa laburtu. Istorio osoa kontatu. Ipuina antzeztu.
- Kanta ikasi. Dantza bat asmatu kantari. Hitzak aldatu. Beste zati bat asmatu. Doinua aldatu...

2. Ipuina osorik (irudiak eta audioa) ikusi eta entzun eta, aurreko ataleko ekintzaz gain:

- Zein pertsonaiekin identifikatzen da ikasle bakoitza? Zergatik?
- Pertsonaiak deskribatu, marraztu, imitatu, antzeztu. Pertsonaia bat aukeratu eta hori bezala jokatu denbora batez. Pertsonaia bat aukeratu eta besteek berari elkarrizketa egin.
- Gehien gustatu, harritu, desatsegindu... dituen zatia kontatu, marraztu, antzeztu... eta esan zergatik.

3. Erabili testurik eta audiorik gabeko irudien aurkezpena edo PDFa inprimatu eta...:

- Irudiak arbelean kokatu ipuinaren ordena jarraituz. Irudiren bat edo batzuk kendu eta istorioa berregin.
- Irudiak jarraituz istorioa ozenki kontatu.
- Irudiak nahastu eta ikasleen artean banatu ondoren, bakoitzak berea erakutsi eta bere zatia kontatu dezala bere txanda dela uste duenean.
- Beste ordena batean kokatu eta beste istorio bat kontatu. Ipuin originalarekin alderatu.
- Marrazkiak neurri txikian eman, beraiek ebaki eta itsatsiz komikia egin.

4. Testua duten irudiekin irakurketa eta idazketa:

- Irakurri, hitzak azpimarratu, zatia buruz ikasi, kopiatu, esaldietan hutsuneak bete hitz egokia erabiliz, laburtu, sinonimoak bilatu, antonimoak, errimak, onomatopeiak, eta abar.



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO

BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5

UNITATE
DIDAKTIKOA


IRAKASLEAREN GIDA 15

5

MAHAI JOLASA "ZERRENDA"

Mahai jolasa da. Dinamika desberdinak erabiliz jolastu daiteke. 60 fitxak ditu (21 x 7,5 zm-ko neurriko txartelak):

- **30 helburu-fitxa:** jendeak bizitzarako bere buruari proposa ditzaken hainbat helburu adierazten dira esaldi eta irudi baten bidez. Helburuak arlo familiarrean, laborean eta sozialean eduki ditzakegun xede eta desioei buruzkoak dira, zaletasunekin, lanbideekin, bizimoduarekin lotuta.
- **30 plan-fitxa:** fitxa bakoitzak hainbat helburu lortzeko garatu eta eskuratu behar den ahalmena, jakintza, ondasuna... jasotzen du. Helburuak gauzatzeko lortu behar diren "mailak" edo "bitartekoak" dira.



Zoriontsu izan

Ser feliz

Helburu 1: Enplegu ona izan.	Plan 1: Unibertsitateko ikasketak.
Helburu 2: Teknologia berriekin lan egin.	Plan 2: Hizkuntzak.
Helburu 3: Bikotekide eta seme-alabekin familian bizi.	Plan 3: Informatika.
Helburu 4: Munduko hainbat lurraldetan bakarrik bizi.	Plan 4: Esku trebetasuna, abilezia.
Helburu 5: Baratzedun etxean bizi.	Plan 5: Errespetua, adeitasuna.
Helburu 6: Osasun ona izan.	Plan 6: Arreta, pazientzia...
Helburu 7: Makinak eta ibilgailuak erabili.	Plan 7: Etxeko lanak.
Helburu 8: Denda bat ireki.	Plan 8: Zaintza.
Helburu 9: Aurkikuntza zientifiko handi bat egin.	Plan 9: Landare laborantza.
Helburu 10: Jendeari barre eginarazi.	Plan 10: Kirola.
Helburu 11: Etxe eroso eta garbia izan.	Plan 11: Janari osasungarria.
Helburu 12: Munduan zehar furgonetaz ibili.	Plan 12: Lo indar berritzailea.
Helburu 13: Animaliekin bizi.	Plan 13: Antolatzeke eta kudeatzeko jakintza.
Helburu 14: Musika talde batean jo.	Plan 14: Dediakazioa, konstantzia.
Helburu 15: GKE batean elkarlanean aritu.	Plan 15: Ikerketa.
Helburu 16: Nire herriko alkatea izan.	Plan 16: Autonomia pertsonala.
Helburu 17: Kirolari profesionala izan.	Plan 17: Umorea, sinpatia...
Helburu 18: Telebista programa bat aurkeztu.	Plan 18: Sormena, irudimena.
Helburu 19: Lagunekin etxebizitza berean bizi.	Plan 19: Gidabaimena.
Helburu 20: Haur txikiei irakatsi.	Plan 20: Anbizioa.
Helburu 21: Nire herriko bizitzan parte hartu.	Plan 21: Lagunak.
Helburu 22: Gaixoak sendatu.	Plan 22: Jakin-nahia, gaitasun kritikoa.
Helburu 23: Jendaurrean abestu eta dantza egin.	Plan 23: Neure buruarengan ziurtasuna.
Helburu 24: Nire familia zaindu.	Plan 24: Familiarentzako denbora.
Helburu 25: Maratoi batean korrika egin.	Plan 25: Lagunentzako denbora.
Helburu 26: Zinemari lan egin.	Plan 26: Nire zaletasunentzako denbora.
Helburu 27: Zoriontsu izan.	Plan 27: Proiektuak, nahiak.
Helburu 28: Munduan gertatzen dena ezagutu.	Plan 28: Eskuzabaltasuna.
Helburu 29: Pertsona ona izan.	Plan 29: Elkarteak, alderdi politikoak.
Helburu 30: Nire ideiak defendatzen jakin.	Plan 30: Enplegua.

Helburuak:

Helburu nagusia hau da: ikasleek barneratzea aukeratu duten bizi proiektu pertsonala garatzeko (helburuak arlo pertsonalean, laborean, sozialean... lortzeko) beharrezkoa dela nola egin planeatzea eta behar diren erabakiak hartzea. Eta, bide batez, neskek eta mutilen euren helburuak generoko baldintzarik gabe aukeratu dezaketela ikustea.

- Fitxetan irudikatzen diren helburuak aukeratu ditzakegu, nahiz neska nahiz mutila izan? Zergatik?
- Gure gizartean, ohikoagoak dira helburu batzuk beste batzuk baino nesken artean edo mutilen artean? Zergatik?
- Neskek eta mutilen helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren erabakiak era berean har ditzakete? Zeintzuk? Zergatik?

Jolasten hasi aurretik, helburuen eta planen fitxak ondo ezagutzea gomendatzen da, marrazkien esanahia eta hitzak argituz.

Jolas arauak. “Zerrenda luzeena”

Xedea helburu bakar bat lortzeko plan-fitxaz osaturik ahal den zerrenda luzeena lortzea da.

- Taldeka jolasten da. 4 edo 5 neska-mutilez osatutako taldeetan.
- 30 helburu-fitxak eta 30 plan-fitxak taldeen artean banatzen dira.
- Talde bakoitzak bere mahai gainean jartzen ditu helburu-fitxak. Helburu bakoitzetik behera helburu hori lortzea ahalbideratuko duten plan-fitxak jarriko dituzte.
- Posible da helburu batzuentzat plan edo bitarteko-fitxa egokiak ez suertatzea.
- Beren helburuentzat egokiak diren plan-fitxa guztiak jarri ondoren, zerrenda luzeena aukeratu eta luzatzen saiatu.
- Plan-fitxa bat hainbat helburuentzat egokia eta beharrezkoa izan daiteke.
- Helburu-fitxa baten plan edo bitarteko-fitxen zerrenda beste helburu-fitxa bat gehituz luza daiteke, helburu honek helburu nagusia lortzeko bitartekoa izan badaiteke.
- Taldeak erabili ez dituen plan-fitxak baditu, beste taldeekin alda ditzake (talde guztiak zerrenda luzeena osatuta dutenean, horrela egin daiteke: "bat, bi eta... hiru", eta soberan duen plan-fitxa bat bere eskubidean dagoen taldeari eman).
- Irakasleak zerrendak ondo osatu direla egiaztatuko du eta plan-fitxak zergatik jarri dituzten horrela galdetuko die, egindakoa aztertu, zehaztu, zuzendu eta zalantzak argituko ditu, zerrenda gehiago luzatu daitekeen aztertuko du ikasleekin...

“Zerrenda kopuru handiena”

- Xedea helburu kopuru handiena lortzea da, beharrezko diren plan-zerrendekin. Dinamika honetan plan-fitxak modu egokian banatzea garrantzitsua da, helburu-fitxa guztien azpian, helburu guztiak lortzeko.

“Gure zerrenda. Nire zerrenda.”

- Banaka edo taldeka nahi duten helburu-fitxa aukeratu eta helburu hori lortzeko baliagarriak izan daitezkeen jolasaren plan-fitxa guztiak jartzen dira mailaz maila helburu-fitxaren azpitik.
- Ikasleek jolasean ez dauden baina helburua lortzeko egokiak izan daitezke planak edo bitartekoak pentsatu eta proposatu behar dituzte, eta beren plan-fitxak egin jolasari gehitzeko.
- Ikasleek helburu berriak proposatu ditzakete, beren helburu-fitxak egin, eta jolasaren plan-fitxak eta plan-fitxa berriak erabili helburu-fitxa berri horien zerrendak egiteko.

